




8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure **funtsezko jarduera ekoizpena** da, hau da, **manufaktura-enpresa** bat da, beiraz egindako bitxi eta apaingarri pertsonalizatuak diseinatzen baititugu, ekoizteko eta saltzeko. Hala ere, bitxiak eta apaingarriak saldu ahal izateko, hainbat prozesu gauzatu behar ditugu lehenik: Hasteko guztiok batera elkartu ginen ideia bat martxan jartzeko eta gero hau gauzatzeko urratsak pentsatu genituen.

1. Geroago Espainiako Gobernuak gazte ekintzaileei eskaintzen dizkien diru-laguntzak begiratu genituen eta haietako bat eskatu dugu.
2. Hala ere, aurrekoarekin ez genuen diru nahikoa bildu, beraz enpresa honen bazkide garen bakoitzak (Paula, Naroa, Andoni, Leire eta Iratxe), 1000€-ko inbertsioa egin genuen.
3. Diru horrekin enpresa hau sortzeko behar genuena erosi genuen: lokala, produktuak egiteko materialak...
4. Gero, lehenengo urratsean taldekide guztiak ados geunden ingurumena lagundu nahi genuela eta horregatik, fase honetan Fundación Biodiversidad izeneko erakundearekin kontaktuan jarri ginen, gure bezeroei ezagutarazteko gure diru-iturrien zati bat, erakunde honetara zuzenduta dagoela. Erakunde hau zehazki, borrokatzen du gure ingurunea modu egokian mantentzeko, adibidez, itsasoak garbituz.
5. Falta zitzaigun publizitatea egitea eta horretarako, gure enpresa bezeroen artean ezagutzera emateko, hainbat sare sozial sortu genituen, gure dendara etortzera bultzatuz.
6. Azkenik, ikusi genuenez dena ondo zebilela, Online denda bat sortu genuen, non gu banatzaileak garen. Oso garrantzitsua da gure online denda hau ondo kudeatuta egotea.

Aurretik aipatutako sare sozialak, ezagutzera emateko modu bat, honako hauek dira:



INSTAGRAM:@birbeiratu

FACEBOOK: Birbeiratu Elkarte **TWITTER:** @birbeiratu

<https://www.instagram.com/?hl>

<https://www.facebook.com/>

<https://twitter.com>